



Laguntxoak, hor duzute Untxi. Untxi kuitxo maitagarria da, argia, behar bada bihurritxo eta lasaia baina beti jolaserako gogoz.

Oihan liluragarri batean bizi da eta banan bana ezagutzen ditu zuhaitz guztiak, ostu guztiak eta baitere zomorrerik txikiak. Guztien lagun ona da eta ez dago bere adiskidetasuna atsegingarri ez zaionik. Mitxeletak ere, badakizute zein kezkatu eta iheskorak diran eta haizeak mugitzen duan ostu batekin ere bildurtzen diranak, Untxi gandik ez dute ihesik egiten eta bai bere inguruan egaz ibiltzen dira eta berari jarraitzen uzten diote.



Gaur zerbait berriren nahia du, bihoztxoan zirrara berria emango dion zerbaiten bila, bere betiko laguntxoekin ariniketan eta jauzika ibiltea baino zerbait probetxuzkoagoa eta, hain zuzen ere, ez dute ulertzen Utxi-k berentzako duen aldakuntza hori.



Baina goiz hontan, inork ez daki zergatik, Untxikez du bestetan bezala jolasteko gogorik. Ez dio egiten jaramonik nor lasterrago desafiatzeko duan sagutxoari, oihaneko beste kuitxoak beren ustez utzia dagoan haitzulo bat ikertzera berekin joateko deia egiten diotenean ere ez.

Bat-batean, Untxi aintzira bazterrean dagoan kainaberadiatz konturatzean asmu bat sortu zaion. Bera zergatik ez izan arrantzalea? Esan eta egin: ebaten du kainaberarik luzeena eta era berean bihurkorrenetariko bat eta bere hautamenez pozturik propatzen du bein eta berriz bizkarrean ipiniaz, eta bizkarrean kainabera eramatea txit gogoko zaio.

Baina arrantzarako ez da aski kainabera, haria eta amoa ere beharrezkoak dira.

Untxi-k badaki guzti hori amaren jostun-saskian dagoala, eta beste gabe ariniketan abiatu da etxeruntza bere oin bizkorrekin.



Bere lasterka azkarrean bizkarreko kainabera ezker-eskubi toki guzietan oztopuz zeraman eta... a zer nahigabea! gutxi falta izan zaio andere Biliri buruan zeraman kapela lurrera botatzeko.

—Kua, kua!— hots egin zion hasarraturik mundu guztiari



ohitura onak erakusten hain laguna zan andereak. —Izan ere egunonak emateko ohitura ere galdu al zaigu? Zoaz kontu gehiagorekin, lotsagabeori, ia ia bota nauzu eta! Baina nora zoaz zu kainabera luze korrekin, jakin al diteke? Zer bihurrikeri gertatzen ari zera? Untxi gizajoak barka eskatu zion lotsati zenbait aitzaki agertu ere bai eta bere bideari jarraitu zion, baina polikiago.

Baina andere Bili bistatik galdu zuanerako, berriz ere eman zion arinka eroari bere etxera heldu arte. Bere amak, izerdiz eta arnas-estuka heltzean, larriturik galdetzen dio:

—Zer gertatzen da, seme?

—Ezer ere ez amatxo, ezer ere ez— lasaitu zezan kuitxoak—. Ideia on bat dut. Arrantzale egingo naiz. Zu ez arduratu afariagatik.

Hainbeste arrain ekarriko dizkitzut nik auzoeri ere emateko haina izango duzu... Baina, zera, mesedez eman zaidazu hari luze bat eta orratza,



berarekin amoa egiteko...

Amak irri-parrez begiratu zion, eman
zizkion eskatutakoak eta ez du denbo-



rarik izan kontuz ibili dezan esateko ere eta
etxera ez zedila berandu etorri. Baina Untxi, behar
zituanak eskuratzeaz bat aintziraruntza korrika
irten zan...



Ura oso garbia zan. Aintzira bazterrak usaidun zelai muskerrez dira. Inguru guztian isiltasuna jabe dala.

Untxi zoriontsu arkitzen zan. Bere burua norbait zala somatzen zuan. Bein aintziran zanean lehen lana harripeetan harrak bilatu amoan jartzeko eta pozez urduri zan hartuko zituan arrainez pentsatzen...

Gero, kainabera hartu eta dotore antzean luzatu zuan amoa uretara jaurtzeko... Eta



itxaro! Minutu bat... bi, hiru minutu... eta ezer ez! Baina Untxi-k jarrai arrantzan bere begiok harian eta aintziran, so, bihotz taupotsak bizkortzen zaizkiolarik. Arrainak, baina, ez dira hurbiltzen. Zer gertatzen ote zaie? Behar bada, pentsatzen du Untxi-k, hor beste nunbait dabiltzala; eta segi itxaroten. Lehenago edo geroago arrain gizenen bat jausiko dan itxaropena du, zeren bestela, amurruz eta lotsaz negar egingo luke. Geldi

geldi; isil-isil eta eroapenez beterik, arrantzale onaren dohainak diranez, kuitxoak ez du galtzen itxaropenik eta kainaberaren mugimendurik txikienari adi dago. Hain juxtu... arrain bat pikatzera etorrela, bere ondoan igaro zan andere Bili. —Zer moduz arrantza, gure bihurritxoa?— galdetu zion.

—Ondo, oso ondo— gezurrez Untxi-k.

—Pozten naiz. A! Gero nerekin gogoratzen bazera zure lehengo lotsagabekeri hura bereala aitzuko nuke. Agur! Eta andere Bili badijoa bidetxiurreko orbelak kirri-karra zapalduaz.



Pikatzera zijoan arrainak ihes egin zuan, zeren ez da alperrik izaten isila arrantzaleen adiskide-rik hoberena...

Hala ere, Untxi oraindik ez du etsipenak menperatu. Berriz ere bakarrik gelditzean, isiltasun haretan bere saskirako hartu dezazkean arrain zuri gizenekin amets egiten du. Hemen da bat!...



Haria estutu da eta kainabera punta okertu. Untxi hasi zan poliki poliki berari tiraka eta... zer nahigabea!





Amutik zintzilirik pote erdoitua agertu zan, eta, gainera, txarragorako sardina lata zan. Oraintxe bai kuitxoak etsi ziona. Bere ames guztiak eroriaz zijoazten.

Gainera iluntzen ari da, aintzirako ura, lehen urdina zana belzten dijoa eta lurrari lurruna dario, lañoa bezalakoa, oihaneko bidetxiurrak estaltzen dituana. Zuhait ustelduen zuloetatik eizari irtetzen dira gaueko abereak.

Eta behar bada, berandutu dalako bere ama larrituta etxeko ataritik deika izango du. Honela ba, abiatu zan alde hartara, arrainik hartu gabe, bere bihoztxoa mingosturik eta lotsatuta afaitarako ezer ez zeramalako.



Baina kuitxo zaila danez, pentsatzen du... beste egun batean izango da! Ondo daki borondateak eta ahaleginez jarraitzeak lortzen dituala gauzarik nekezenah eta izugarrienak. Beren etxera hurbiltzean sentitu zuan ama gertatzen ari zan afariaren usai gozoa, eta Untxi alaitu zan. Bere

amak, izan ere, ez zuan uste agindu bezala akarriko zuanik eta afari eder bat gertatu du uste izanik kuitxoa gosez eta nekatuta itzuliko zala. Izan ere amak ezagutzen dute beren semeen bihotza eta aurreztik gertatzen dute pozez asetzeko komeni zaiena. Orain Untxi, mahaian izeririk, mauka mauka jaten du... eta bere nahigabe mingotsarekin aitzu da.

